

SAGARDOAREN KULTURA MUNDUAN BARRENA

'Ciderlands, Makers & Lovers' izeneko sarea sortu da berriki, sagardoaren kultura eta turismo gastronomikoa nazioartean sustatzeko

Amaia Arriaran

Sagardoaren Lurraldeak antolatutako I. Sagardoaren Kultura eta Turismoaren Nazioarteko Topaketa dela eta, iaz Europako hamar lurraldetako hainbat ordezkari Hernaniko Orona-Ideo eraikinean elkartu ziren. Helburua sagardo norakoen nazioarteko sare bat sortzeko aukerak aztertzea eta elkarren artean sagardoaren kultura eta turismoa sustatzea zen. Emaiza, *Ciderlands, Makers & Lovers*: Nazioarteko Sagardoaren Kultura eta Turismo Sarea.

Jardunaldian, ordezkari bakoitzak bere nahiak eta beharrak azaldu ondoren, sagardoarekin lotutako esperientzia turistikoaren garapena eta zabalpenaren inguruko ezagutza hedatzeko beharra elkarbanatu zen eta, horrela, nazioarteko sare bat sortzea erabaki zen. Guztira, Gales, Austria, Irlanda, Norvegia, Alemania, Ingalaterra, Galizia, Britainia, Asturias eta Euskal Herriko hamabost ordezkari adostu zuten egitura sortzea. Izan ere, lurralde horietako bakoitzean ekoizten den sagardoa ezberdina izan arren, bakoitzaren artean harreman kultural handia dago eta elkarlana ezinbestekoa da industria hau garatzeko.

Behin erabakia hartuta, sarearen baitan gauzatu beharreko proiektuen inguruko lehentasunak zehaztu ziren; hala nola, eskaintza turistiko jasangarria garatzea sagardoaren kulturaren inguruko herentzia eta ingurumena zainduz, ezagutza eta eskarmentua partekatzea eta zabaltzea kideen artean, elkarlanean jardutea sagar-

doaren kulturaren eta turismoaren sustapenean, azoketan elkarrekin parte-hartzea, edota sarea erreferente gisa baliatzea eskualdeko, Europako eta nazioarteko erakundeen aurrean.

Horrez gain, talde marka bat (*Ciderlands, Makers & Lovers*) eta webgune bat (www.ciderlands.org) eratzea adostu zen, bertan sagardoari lotutako eskaintza turistiko nahiz kulturala duten norakoak ezagutzara emanez, sarea osatzen duten eskualdeetan turismoa sustatzeko. Amaitzeko, hartutako beste erabakietako bat urtero topake-



I. Sagardoaren Kultura eta Turismoaren Nazioarteko 2018ko Topaketa Hernaniko Orona Ideon. N.G.

'Ciderlands, Makers & Lovers' sarearen baitan, urtero topaketa bat antolatuko da

ta bat antolatzea izan zen, herrialde parte-hartzaileetako batean hain justu.

SagarBike, bizikleta gainean

Eskaintza turistiko eta kultural horien artean, Sagardoaren Lurraldeak antolatzen dituen esperientzietako batek SagarBike izena du. Egitasmo honek kultura, kirola eta gastronomia uztartzen ditu eta sagardoaren kultura kirola eginaz gozatzeko esperientzia aparta da; Donostiatik Astigarragarako bidea bizikletan egin eta Sagardoetxea bisitatzeko aukera eman die bertakoei nahiz kanpotarrei. Zehazki, Donos-

tiako alde zaharretik hasi eta Urumea ertzetik gorririk egiten da ibilaldia. Behin Astigarragara hartzailerik Sagardoetxea sagardoa eta pintxo bertan zuten dituzte, txotxakaren sekretuak ezagutu eta bertan nomiaz gozatzeko. Bisitariek, berrito ere bizikleta eta Urumea ertzetik Donostiatzen dira. Esperientzia honekin, bisitariei Urumea sekretuak ezagutu, sagardotu eta Sagardoetxean bertan gozatzeko aukera ematen



ORAINBERTAKOAK

gipuzkoa.eus

Garaia da. Lehen sektorea, baserritarren jarduera eta hemengo produktuak sustatzeko garaia.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

